

# Estereo bat bero



TESTUA ETA ARGAZKIA:  
**Jakoba Errekondo**  
**jakoba@bizibaratzea.eus**

Metro kubo egur gordin, horixe da estereo. Guk zuhaitzek, arbolek eta zuhaiek duden parte gogor guztiei deitzen diegu egurra. Zenbaitek parte gogor hori bitan banatzen dute: zura eta egurra. Gaurkorako berdin dit, utan errekoaz ariko naizenez, era batera edo bestera egurra.

Egur batetik bestera ere badago bada aldea. Trinkoak, astunak, arinak, biguinak, gozoak... Egurretan ere denetik. Eta utan jarritakoan? Eltzea utan jarrita probatzen omen da, baina su hori egin behar duen egurra ere ederki probatuko du garrak.

Lagun amerikar batek bidali dit han erabiltzen duten su egurraren berotze indarraren neurria. Hiru mailatan banatzen dute egur jendea, gasolinarekin alderatuta ematen duten beroaren arabera.

Lehen multzoko egurren estereo batek 210 eta 260 litro arteko gasolinak adina berotzen dute: amerikar zumarra (*Ulmus americana*), gereziondo beltza (*Prunus serotina*), Douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*), astigar gorria (*Acer rubrum*), zilar-astigarra (*Acer saccharinum*), amerikar alertza (*Larix laricina*) eta paper urkia (*Betula papyrifera*).

Haritz zuria (*Quercus alba*) eta urki horria (*Betula alleghaniensis*).

Bigarren multzokoena estereo batek 160 eta 210 litro arteko gasolinak adina berotzen dute: amerikar zumarra (*Ulmus americana*), gereziondo beltza (*Prunus serotina*), Douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*), astigar gorria (*Acer rubrum*), zilar-astigarra (*Acer saccharinum*), amerikar alertza (*Larix laricina*) eta paper urkia (*Betula papyrifera*).

Hirugarren multzoko egurrek sortzen duten energia 105 eta 155 litro arteko

gasolinaren parekoa da, hauena: amerikar lertxuna (*Populus tremuloides*), amerikar makala (*Populus deltoides*), kanadar tsuga (*Tsuga canadensis*), pinu okerra (*Pinus contorta*), hultzgorria (*Alnus rubra*), sekuoia (*Sequoia sempervirens* eta *Sequoiadendron giganteum*), Sitka abetua (*Picea sitchensis*), tuia erraldoia (*Thuja plicata*) eta estrobo pinua (*Pinus strobus*).

Negua amaitu aurretik, gure inguruko egurren energia balioa ea aurkitzen duan... ■



## Nafarroako 'piko de peralta' piper ekologikoa



Piperra 4 eratan eska daiteke:  
 gordinik: 2.10€/kg  
 erreta: 2.6€/kg  
 erreta eta garbia: 3.90€/kg  
 hutsean poltsaratu: 4.30€/kg  
 Eskariak 2017/10/27 arte jasoko dira.

**Alkartasuna Kooperatiba:**  
 Atalde industrialdea 26, Usurbil  
 943 361 114 eta 630 938 027  
 alkartasuna@usurbil.com  
 www.alkartasuna.eus